

Xedapen Orokorrak

HERRIZAINGO SAILA

Zk-3554

210/1998 DEKRETUA, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan ikuskizun publikoen eta jolas jardueren ordutegiak ezarri eta jarduera horien beste alderdi batzuk arautu dituen abenduaren 16ko 296/1997 Dekretua aldatzen duena.

Ordutegiei buruzko arautegia indarrean jarri zenetik nahikoa denbora igaro da, eta epe horretan agerian geratu da zilegizko jolas-jarduerak, profesionalen lan egiteko duten eskubidea eta euskal herritar guztiek atseden hartzeko eta lasai egiteko duten eskubidea bateragarri egiteko asmoz ezarri ziren neurri haien egokitasuna.

Arautegi horri esker, lehenengo eta behin, herritarren elkarbizitzan oso eragin kaltegarria izan duen egoera konpontzeko bidean dugu: herritarrek gero eta zarata eta eragozpen gutxiago jasaten dute. Horrela, herritarren oinarritzko eskubideetariko bat babesturik dago eta euskal gizartearen bizitza kalitateak eta ongizateak hobera egin dute.

Bestalde, arautegi hori ikuskizunak eta jolas jarduerak sailkatu eta antolatzeke ezinbesteko administratziotresna bihurtu zaigu. Ostalaritzako jarduerak lau multzotan sailkatu ditu eta multzo bakoitzari bere interes ekonomikoak bermatzeko behar bezain zabalak diren ordu-tarteak ezarri dizkio; jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren ordutegiak arautu eta antolatu ditu, oro har, eta behin-behineko instalazioak ere ordutegien erregimen orokor horretan sartu ditu. Ez du eragozten gaueko jolas jardueretarako lokalen iraupena, horretarako egoki atondurik eta soinu-gabeturik egonez gero, baina aldi berean muga ezarri die gau eta egun etenik gabe luzatzen diren ibilaldiak bezalako ohiturei.

Azkenik, administrazioei berme juridikoak eta jarduteko bermeak eskaini dizkie ordutegien kontrolari begira.

Egoerak pixkanaka hobera egin ahala administrazio publikoak ohartu dira neurri gehiago jarri beharra dagoela, jolas jardueren garapena eta arautegiaren xedeak elkarri areago doitzeko.

Bide horretan, erabiltzaile edo bezeroak ikuskizuna edo jarduera egiten den lokal, instalazio edo barrutitik apurka irtenarazi beharra ikusi da. Era horretara arazo bi baztertu nahi dira: sarrera-irteeretan jendea edota ibilgailuak pilotzean izaten diren zaratak eta eragozpenak, eta ostalariek edo ikuskizun publikoen antolatzaileek jarduera bukatzeko arauzko ordua heltzen denean

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Nº-3554

DECRETO 210/1998, de 28 de julio, de modificación del Decreto por el que se establecen los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas y otros aspectos relativos a estas actividades en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Habiendo transcurrido un tiempo suficiente desde la entrada en vigor de la nueva normativa sobre horarios, se ha puesto de manifiesto la idoneidad de las medidas normativas adoptadas al objeto de compatibilizar las legítimas actividades de diversión y ocio, el derecho de los profesionales a ejercer su actividad y el derecho del conjunto de los ciudadanos vascos al descanso y la tranquilidad.

En primer lugar, la ordenación señalada ha permitido progresar globalmente en una de las situaciones que más estaba afectando a la convivencia ciudadana: disminuir gradualmente los ruidos y molestias soportadas por los vecinos. Se ampara con ello un derecho ciudadano básico y se eleva la calidad de vida y el bienestar de la sociedad vasca.

Igualmente, se ha convertido en un instrumento administrativo primordial para clarificar y ordenar estas actividades, al establecer cuatro grupos definidos de actividad hostelera con márgenes horarios suficientes para garantizar los intereses económicos de cada uno de ellos, al regular y ordenar los horarios del conjunto de espectáculos públicos y actividades recreativas e incluir las instalaciones eventuales dentro del régimen horario general. Todo ello, asimismo, sin impedir la permanencia de locales que, específicamente habilitados e insonorizados, atiendan la diversión y el ocio nocturno, pero reduciendo, al mismo tiempo, fenómenos como los de las rutas o itinerarios ininterrumpidos.

Finalmente, ha permitido abordar con mayores garantías jurídicas y operativas el control administrativo de los horarios.

Además de producirse esta mejoría progresiva, esta experiencia ha permitido igualmente a las administraciones públicas constatar la necesidad de nuevas medidas que contribuyan a un ajuste más preciso entre el desarrollo de estas actividades y los objetivos perseguidos con la regulación.

En este sentido, se ha considerado la necesidad de prever una salida progresiva de los usuarios o clientes del local, instalación o recinto donde se celebre o desarrolle un espectáculo o actividad, evitando con ello tanto los ruidos y molestias que tienden a producirse por la acumulación de personas o vehículos en las salidas y accesos de los mismos, como los conflictos y dificultades

erabiltzaile edo bezeroak kanporatzeko izaten dituzten zailtasunak.

Horregatik zentzuzkoa da, lehendik ezarritako itxiera orduak aldatu gabe, profesionali denbora-tarte bat ezartzea, lokalak pixkanaka jendez hustu eta jardueri lasaitasunez amaiera eman ahal diezaioten.

Beste alde batetik, xedapen hau bat dator Estatu Kontseiluak 5779/97/MA zenbakiko txostenean egin duen balorazioarekin eta azterketa juridikoarekin.

Ondorioz, Herrizaingo sailburuaren proposamenez, Ikuskizun Publiko eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluak eta Kontsumorako Aholku Batzordeak aldeko txosten bana emanda, eta Jarlaritzaren Kontseiluak 1998ko uztailearen 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengo atala.– Abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ikuskizun publikoen eta jolas jardueren ordutegiak ezarri ditu eta jarduera horien beste alderdi batzuk arautu ditu. Haren 8. atala honela idatzi behar da:

«**8. atala.**– Ikuskizun eta jardueri amaiera ematea eta jendea joanaraztea.

1.– Dekretu honek lokalak eta instalazioak (iraunkorrak nahiz aldi baterakoak) ixteko ezartzen duen ordua heltzean, edota ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak bukatzeko ezartzen duen ordua heltzean, neurri hauek hartuko ditu lokalaren titularrak:

a) Musika, ikuskizun, antzerki, erakustaldi, proiektio edo emanaldiari amaiera ematea eta lokalean erabiltzaile edo bezeroentzako zerbitzu gisa jarritako soinu-iturri guztiak etetea.

b) Jokoetarako makina, aparatu eta beste edozein sistema amatatzea. Era berean, joko aretoetan ordu horretatik aurrera ez da baimendun partidarik ez jokorik hasiko.

c) Lokaleko atea ixtea eta erabiltzaile edo bezero gehiago sartzen ez uztea.

d) Lokal barruan dauden erabiltzaile edo bezeroak irtenaraztea, lokala, instalazioa, ikuskizuna edo jolas jarduera ixteko ezarritako orduaren ondorengo 30 minutuen barruan. Epe hori igarotakoan lokala atondu eta garbitzeko ardura duen pertsonak baino ez dira egongo barruan.

des que los profesionales hosteleros u organizadores de eventos públicos pueden tener para desalojar a los usuarios o clientes una vez llegada la hora reglamentaria para el cese de su actividad.

Por ello, debe entenderse razonable la autorización de un período de tiempo que, sin modificar los horarios máximos de cierre ya establecidos, permita a los profesionales una progresividad en el desalojo de los locales y una ordenada finalización de las actividades.

Por otro lado, la presente disposición resulta conforme y congruente con la valoración y el análisis jurídico realizado por el Consejo de Estado en su informe número 5779/97/MA.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, habiendo emitido informe favorable el Consejo Vasco de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, así como recabado el informe preceptivo de la Comisión Consultiva de Consumo, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 28 de julio de 1998,

DISPONGO:

Artículo primero.– El artículo 8 del Decreto 296/1997, de 16 de diciembre, por el que se establecen los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas y otros aspectos relativos a estas actividades en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco queda redactado de la siguiente forma:

«**Artículo 8.**– Finalización de espectáculos y actividades y desalojo.

1.– Llegada la hora establecida para el cierre de los locales o instalaciones, permanentes o eventuales, o de finalización de los espectáculos públicos y actividades recreativas previstos en el presente Decreto, y bajo la responsabilidad del titular del local, se deberán adoptar las siguientes medidas:

a) El cese de la música, espectáculo, representación, exhibición, proyección o actuación, así como de cualquier fuente de sonido existente en el local como servicio a los usuarios o clientes.

b) El cese del funcionamiento de las máquinas, aparatos o sistemas de juego de cualquier naturaleza. Igualmente, en los locales de juego, no podrá comenzarse ninguna partida o juego autorizado.

c) El cierre de las puertas de acceso al local y la prohibición de entrada al mismo de potenciales usuarios o clientes.

d) Proceder al desalojo de los usuarios o clientes restantes en el local en el plazo máximo de 30 minutos contados desde la hora de cierre establecido para el local, instalación, espectáculo o actividad recreativa. A partir de este momento, únicamente podrán permanecer en el interior las personas encargadas de las tareas propias de adecuación y limpieza del local.

2.- Lokal itxietan egiten direnez gero ikuskizun publikoak eta jolas jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 16. atalean ezarritako administrazio-baimena behar duten ikuskizun eta jardueretan ere, jendea aurreko idazatian ezarritako epe berean irtenaraziko da lokaletik eta neurri berberak hartuko dira. Baime-na emateko ebazpenean bertan jendea irtenarazteko epea ezarri ahal izango da, lokalean baime-naz sar daitekeen gehieneko lagun kopurua kon-tuan izanik egoki irizten bazaio.

Jendea irtenarazteko epe hori gorago aipatu-riko legearen eranskinean ageri diren ikuskizun publiko eta jolas jardueri ere aplikatu ahal izan-go zaie.

3.- Atal honen 1. idazatik b letran azaldu-takoa kasinoei buruzko arautegian biribil-jokoe-tarako xedaturik dagoenaren kalterik gabe eza-rri dela ulertu behar da.»

Bigarren atala.— Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ikuskizun publiko eta jolas jardueren ordute-giak ezarri eta jarduera horien beste alderdi batzuk arautu dituen abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren I. eranskina honela idatzi behar da:

2.- Los espectáculos y actividades que se ce-lebren en locales cerrados y que precisen autori-zación administrativa de conformidad con lo pre-visto en el artículo 16 de la Ley 4/1995, de 10 de noviembre, de espectáculos públicos y activi-dades recreativas, dispondrán de un plazo de de-salojo igual y con idénticas condiciones al esta-blecido en el apartado anterior. Cuando el aforo máximo autorizado así lo aconseje, la propia re-solución de autorización podrá establecer el tiem-po de desalojo oportuno.

Este tiempo de desalojo será igualmente apli-cable a aquellos espectáculos públicos y activi-dades recreativas contenidos en el Anexo a la ci-tada Ley.

3.- Lo referido en la letra b del apartado 1 del presente artículo, se entenderá sin perjuicio de lo dispuesto para los juegos de círculo en la nor-mativa de casinos.»

Artículo segundo.— El Anexo I del Decreto 296/1997, de 16 de diciembre, por el que se estable-cen los horarios de los espectáculos públicos y activi-dades recreativas y otros aspectos relativos a estas acti-vidades en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco queda redactado de la siguiente forma:

ERANSKINA / ANEXO

GEHIENEZKO ORDUTEGI BAIMENDUA
 HORARIO MÁXIMO AUTORIZADO
 (EUSKO JAURLARITZAREN 296/1997 DEKRETUA / DECRETO 296/1997 DEL GOBIERNO VASCO)

MAILA GRUPO	NEGUA / INVIERNO		UDA / VERANO	
	IREKI APERTURA	ITXI CIERRE	IREKI APERTURA	ITXI CIERRE
ASTEGUNAK DÍAS ORDINARIOS				
OSTIRAL ETA JAIEGUN BEZPERAK VIERNES Y VÍSPERAS DE FESTIVOS				

OHARRA: IXTEKO ORDUA DENEAN LOKALEKO ATEAK ITXI EGINGO DIRA, ENPRESAK EZ DIE SARTZEN UTZIKO ERABILTZAILE EDO BEZEROEI, ETA 296/1997 DEKRETUAREN 8. ATALEAN EZARRITAKO GAINERAKO NEURRIAK HARTUKO DIRA. UNE HORRETATIK AURRERA LOKALA ORDU ERDIAN JENDEZ ERABAT HUSTU BEHAR DA.

NEGUKO ORDUTEGIA: URRIAREN 1ETIK MAIATZAREN 31RA BITARTEAN. UDAKO ORDUTEGIA: EKAINAREN 1ETIK IRAILAREN 30ERA BITARTEAN.

NOTA: LLEGADA LA HORA DE CIERRE, DEBERÁ PROCEDERSE AL CIERRE DE LAS PUERTAS DEL LOCAL, IMPIDIÉNDOSE POR LA EMPRESA LA ENTRADA AL MISMO DE USUARIOS O CLIENTES, Y ADOPTÁNDOSE EL RESTO DE MEDIDAS ESTABLECIDAS EN EL ARTÍCULO 8 DEL DECRETO 296/1997. A PARTIR DE ESE MOMENTO, SE AUTORIZA MEDIA HORA PARA EL DESALOJO COMPLETO DEL LOCAL.

HORARIO DE INVIERNO: 1 DE OCTUBRE A 31 DE MAYO. HORARIO DE VERANO: 1 DE JUNIO A 30 DE SEPTIEMBRE.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Dekretu honetan ezarri diren arauen urratzei buruzko aktak egiteko eredu abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren II. eranskinean dago. Akta egiterakoan, jendea irtenarazteko epean lokalean gertatutako gora-beherak oharretarako lekuan idatzi behar dira.

INDARGABETZE-XEDAPENA

Dekretu honen maila berekoak edo beheragokoak izan eta honetan ezarritakoarekin bat ez datozen xedapenak aurrerantzean indargabeturik gelditzen dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Herrizaingo sailburuari ahalmena emango zaio dekretu hau garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, bigarren atalean jarritakoa izan ezik, berau dekretua argitaratu eta biharamunetik zenbatu beharreko 45. egunean jarriko baita indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko uztailaren 28an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Herrizaingo sailburua,
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA****Zk-3555**

ERABAKIA, 1998ko uztailaren 6koa, Hezkuntza sailburuordearena, Hizkuntz Normalkuntzako Proiektuen deialdia erabakiz.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1998ko apirilaren 27ko Aginduz (maiatzaren 11ko EHAA) ikastetxeek Hizkuntz Normalkuntzako Programako deialdia zabaldu zen. Deialdi honen erabaki proposamena egiteko batzordea ekainaren 17an bildu zen, neu batzorde buru izanik eta, bere proposamenari jarraiki,

DISPOSICIÓN ADICIONAL

A efectos del levantamiento de actas de infracción contra las normas establecidas en el presente Decreto, las circunstancias del local durante el período de desalojo se harán constar en el espacio reservado para observaciones que figura en el modelo de acta establecido en el Anexo II del Decreto 296/1997, de 16 de diciembre.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas todas las disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a lo dispuesto en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta al Consejero de Interior para dictar las disposiciones necesarias en desarrollo del presente Decreto.

Segunda.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, excepto la previsión recogida en el artículo segundo, que entrará en vigor a los 45 días a partir del día siguiente a la publicación del presente Decreto.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Interior,
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN****Nº-3555**

RESOLUCIÓN de 6 de julio de 1998, del Viceconsejero de Educación, por la que se resuelve la convocatoria de los Proyectos de Normalización Lingüística.

Por Orden de 27 de abril de 1998 (BOPV de 11 de mayo) del Departamento de Educación, Universidades e Investigación se publicó la convocatoria para los centros de enseñanza que deseen realizar su Proyecto de Normalización Lingüística. A propuesta de la comisión encargada de elaborar la proposición de resolución, reunida el 17 de junio bajo mi presidencia,